

III. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zuzendu zeure gogora gure bizitza,
fruitu on ugari eman dezagun
zure Seme maitearen izenean.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Is 9, 1-4

*Jentilen Galilean
argi haundi bat ikusi zuen herriak.*

Isaias Profetaren liburutik

Aldi batez, Jaunak lotsakizunez bete zituen
Zabulon eta Neftaliko lurraldeak;
orain, ordea, ospez beteko du
Jordanez beste aldetik datorren itsasoko bidea,
jentilen Galilea.
Ilunbetan zebilen herriak
argi haundi bat ikusi zuen;
herio itzalean bizi zirenak
distira batek argitu zituen.
Gehitu zenuen poza
eta haunditu atsegina;
pozetan dabilta zure aurrean,
itai aroan izaten den pozez,
harrapakinak banatzekoan izaten den atseginez.
Puskatu baituzu
haren uztarri astuna,
haren bizkar makila, eta zapaltzailearen zigorra,
Madiango egun hartan bezala.

ERANTZUN SALMOA: Sal 26, 1. 4. 13-14

R/. **Jauna dut argi eta salbamen.**

Jauna dut argi eta salbamen, nork ni beldurtu?

Jauna biziaren babes, nork ni izutu? R/.

Gauza bat diot eskatzen Jaunari,
horren bila nabil:
Bizi nadila Jaunaren etxean,
nire bizitzako egun guztietan;
Jaunaren samurtasuna goza dezadan,
Haren jauretxea begiz ikus dezadan. R/.

Jaunaren ontasuna ikusi ustean
nago biziaren lurrean.
Itxaron Jaunarengan eta kemen izan,
Bizkor bekizu bihotza, eta itxaron Jaunarengan. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 1, 10-13. 17

*Izan zaitezte iritzi bereko,
eta ez ibil banatuta.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren izenarengatik eskatzen dizuet: izan zaitezte iritzi bereko, eta ez ibil banatuta; bat egizue elkarrekin, iritzi bereko eta gogo bereko izanez.

Izan ere, ene senideok, Kloenekoek jakin erazi didate, eztabaidak direla zuen artean: hor ari omen zarete, noski, bakoitza bere aldetik, esaten: ni Paulorena naiz, ni Apolorena; ni Pedrorena, ni Kristorena.

Zatitua al dago Kristo? Paulo gurutziltzatu ote zuten, bada, zuengatik? Edota Pauloren izenean bataiatuak izan ote zarete?

Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, berri ona zabaltzera baizik; eta hori ere, ez jakinduriazko hitzez, Kristoren gurutzeak indarrrik gal ez dezan.

EBANJELIOA: Mt 4, 12-23

Aleluia: Ik. Mt 4, 23

R/. Aleluia.

V/. Jesusek erreinuko berri ona hotsegiten zuen,
eta gaitz guztiak sendatzen zituen herrian. R/.

*Kafarnauna joan zen bizitzera,
Isaias profetak esana bete zedin.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Joan bahitu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Nazaret utzirik, itsas bazterreko Kafarnauna joan zen bizitzera, Zabulonen eta Neftaliren mugetara. Horrela bete zen Isaias profetak esana:

«Zabulonen lurraldea,
Neftaliren lurraldea,
itsas bidea, Jordanez beste aldean,
atzerritarren Galilea.
Ilunbetan zebilen herriak argi haundi bat ikusi zuen;
herio itzalpeko lurraldean zeudenei,
argi bat agertu zitzaien».

Orduan hasi zen Jesus hotsegiten eta esaten: «Bihotz-berri zaitezte, hurbil da eta zeruetako erreinua».

Jesusek, Galileako itsas bazterrean zebilela, bi anaia ikusi zituen —Pedro deritzan Simon eta haren anaia Andres—, itsasoan sareak botatzen, arrantzaleak bainziren. Eta esan zien: «Zatozte Nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

[Handik aurrera zihoala, beste bi anaia ikusi zituen —Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak—, itsas ontzian sare konpontzen ari zirela beren aita Zebedeorekin; eta dei egin zien. Haiek ere, berehala ontzia eta aita utzi eta jarraitu egin zioten.

Jesus Galilea osoan barrena zebilen, haien sinagogetan erakusten, erreinuko berri ona hotsegiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen herrian.]

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna, gure eskaintzari:
gu santu egin gaitzala eta salba.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
bizi berriaren grazia eman diguzu;
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.
Jesu Kristo.